

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

345/2026 Erabakia, ekainaren 2koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako kirol federazioentzako 2026. urterako zenbait laguntza lerroren deialdiari

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoa eta Kirola arautzen duen martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 4.h artikuluan, lurralde historikoetako foru-organoei esleitzen zaie, besteak beste, kirol-federazioen onarpenari, laguntzari, finantzaketari, esku-hartzeari eta kontrolari buruzko eskumena, haien funtzio publikoak betetzen direla bermatzeko, jarduera pribatuari kalterik egin gabe.

Bestalde, Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 dekretuaren 6. artikulua adierazten duenez, administrazioek, beren aurrekontuek ezartzen dituzten zuzkiduren barruan, laguntza ekonomikoa eta teknikoa emango diete kirol-federazioei beren jarduerak garatzeko.

Horregatik guztiagatik, erabaki honen bidez, formula bat gaitu nahi da, aurrekontu-mugen barruan, Arabako kirol-federazioei baliabide ekonomikoak emateko, administrazio-funtzio publikoak bete ditzaten eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile gisa jarduten dutenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoa eta Kirola arautzen duen martxoaren 30eko 2/2023 Legeak esleitzen dizkien eskumenak baliatuz.

Kirol zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Ondorioz, Kultura eta Kirol Departamentuko foru diputatu titularraren proposamenez eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, hauxe

AKORDIOA

Lehenengoa. Onartzea Arabako Kirol Federazioentzako 2026rako laguntzen deialdi publikoa, zeina eranskinean jasota baitago.

Bigarrena. Deialdian eskatzen diren agirien ereduak onartzea (agindu honen I., II. eta III. eranskinak).

Hirugarrena. Deialdi hau arautzeko, kontuan hartu dira Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua, 2019ko azaroaren 20ko 134 zenbakiko ALHAOn argitaratua, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuaren bidez aldatua), Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoa eta erabaki honen eranskinean xedatutakoa.

Laugarrena. Laguntza horien gehieneko zuzkidura 430.000,00 eurokoa izango da. Gastu hori babesten duen aurrekontu-partida 70201. G/341700/48100710 da, «Arabako Kirol Federazioen dirulaguntzak», Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko Gastuen Aurrekontuan.

Bosgarrena. Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute interesdunek.

Seigarrena. . Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta hurengo artikuluetan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 2a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

ARABAKO KIROL FEDERAZIOETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, 2026. URTEA

1. artikulua. Deialdiaren xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura

1. Deialdi honen helburua da Arabako kirol federazioei honako helburu hauek betetzeko baliabide ekonomikoak ematea:

a) Administrazio arloko eginkizun publikoak betetzea eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile gisa jardutea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoa eta Kirola arautzen dituen martxoaren 30eko 2/2023 Legeak ematen dizkien eskumenak erabiliz.

b) San Prudentzio txapelketak antolatzea eta egitea.

c) Hari atxikitako erakundeetan, euskararen erabilera sustatzea.

d) Kirol federazioen kudeaketa teknikoa profesionalizatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen beharrei erantzuten dieten teknikarientzako prestakuntza ikastaroen antolaketa sustatzea.

2. Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

2. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan 430.000,00 eurotik gorakoa, eta zenbatekoa "Arabako Kirol Federazioen Dirulaguntzak" deritzon 70201. G/341700/48100710 partidari egotziko zaio, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren barruan.

2. Federazioek dirulaguntza hauetako bat edo batzuk eskuratu ahal izango dituzte, adierazten diren gehieneko zenbatekoekin.

a) 3.000,00 euroko laguntza finkoa, eskabidea behar bezala aurkezten duten eta deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten kirol federazio guztientzat.

b) Hainbat jarduera sustatu eta garatzera bideratutako laguntza espezifiko batzuk:

1. Gehienez ere, 750,00 euroko zenbatekoa, antolatzen den San Prudentzio txapelketa bakoitzeko; kirol modalitate eta federazio bakoitzeko 5 txapelketa antolatu ahalko dira gehienez. 26.250,00 euro erabiliko dira, gehienez ere, dirulaguntza lerro horretan.

2. Arabako kirol federazioetako eta Arabako kirol federazioen elkarteetako soldatapeko langileek egiten dituzten euskara ikastaroei lotutako gastuetarako dirulaguntza, honako muga hauek aintzat hartuta:

- 850,00 euro, 2.000 lizentziatik behera dituen kirol federazio bakoitzeko.
- 2.550,00 euro, 2.000 lizentzia edo gehiago dituen kirol federazio bakoitzeko.
- 850,00 euro, kirol federazioen elkarte bakoitzeko.

5.100,00 euro erabiliko dira, gehienez ere, dirulaguntza lerro horretan.

3. Arabako kirol federazioen eta Arabako kirol federazioen elkarten gastuetarako dirulaguntza bat, gastuak itzulpenei, ekitaldien aurkezleen kontratazioari edo federazioaren jardueretan eta dokumentazioan euskararen erabilera sustatzen edo ziurtatzen duten antzeko beste jarduera batzuei loturikoak badira. Gehienez ere, 10.000,00 euro erabiliko dira dirulaguntza lerro horretan, honako muga hauek aintzat hartuta:

- 2025. urtean egindako gastuen ehuneko 90 gehienez.
- 1.000,00 euroko muga federazio bakoitzeko.

4. 2026an, Arabako kirol federazioetan zuzendari tekniko bat kontratatzeko edo, aurretiaz kontratatuta egonez gero, pertsona horren lanaldia luzatzeko izan diren gastuei aurre egiteko dirulaguntza. Gehienez ere, 35.000,00 euro erabiliko dira dirulaguntza lerro horretan, honako muga hauek aintzat hartuta:

- Zuzendari tekniko berri bat kontratatzeko gastuen ehuneko 70eraino, eta, lehengo lanaldia luzatuz gero, eragindako gastuen ehuneko 50eraino.
- 11.000,00 euroko muga federazio bakoitzeko.

5. Dirulaguntza horrek Arabako kirol federazioen eta Arabako kirol federazioen elkarten gastuak estaliko ditu, 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legeak araututako kirol lanbideren batean jarduteko aukera ematen duten kirol modalitateetako prestakuntza ikastaroak antolatzeagatik. Gehienez ere, 20.000,00 euro erabiliko dira dirulaguntza lerro honetan. Honako muga hauek ezarriko dira:

- Ikastaroaren mailaren arabera:
 - I. mailako ikastaroak edo baliokideak: 2.500,00 euro.
 - II. mailako ikastaroak edo baliokideak: 5.000,00 euro.
 - III. mailako ikastaroak edo baliokideak: 6.000,00 euro.
- Federazioko: 6.000,00 euro.

c) Laguntza osagarri aldakorra, 9. artikuluan ezarritako irizpideen arabera kalkulatua. Dirulaguntza lerro honetara bideratuko da artikulua honen 1. apartatuan ezarritako aurrekontuko muga osoaren eta artikulua honen a) eta b) idatz zatietan aurreikusitako dirulaguntza lerroetan ematen diren laguntza guztien baturaren arteko aldea.

3. artikulua. Diruz lagungarriak diren jarduera eta gastuak

Honako jarduera edo gastu hauek jaso dezakete dirulaguntza:

a) Administrazio izaerako funtzio publikoak betetzea.

b) San Prudentzio edo Estibalizko Andre Mariaren egunaren inguruko kirol jarduerak (proba, txapelketak, erakustaldiak eta antzeko beste proba batzuk) antolatzea, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko barrendegian egiten badira eta dagokion kirol federazioaren egutegi ofizialaren barruan jasota badaude. Jarduera horiek nahitaez 2026ko apirilaren 10etik maiatzaren 3ra bitartean egin behar dira, biak barne. Jardueraren izenak omendu nahi duen zaindaria aipatuko du inolako zalantzarik gabe.

c) Arabako federazioetako edo kirol elkarteetako soldatapeko langileek euskara ikastaroak egitea, 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 20ra bitartean, HABEk homologatutako ikastegi batean. Diruz lagundu daitekeen gastu gisa, matrikula bakarra onartuko da erakunde onuradun bakoitzeko, 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeetan izan ezik; kasu horretan, gehienez hiru matrikula onartuko dira erakunde bakoitzeko. 100 ordutik beherako ikastaroak ez dira diruz lagunduko.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen 44. artikuluan jasotako kirol federazioen nahitaezko agiriak euskaratzea, edo eskola kiroleko hitzarmenei lotutako jarduerak eta bestelako betebeharrak kudeatzeko beharrezkoa den beste edozein agiri itzultzea. Itzulpenak arloan espezializatutako enpresek egin beharko dituzte, eta 2025. urtekoak izan beharko dute.

e) Ahozko komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo direla bermatzen duten jarduerak eta ekitaldiak aurkezten dituzten pertsonen kontratazio espezifikoak. Gastuen fakturak edo egiaztagiriak 2025. urtekoak izan beharko dira.

f) 2026an, Arabako kirol-federazio bateko zuzendari teknikoaren lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko langile berriak kontratatzea. Diruz lagungarriak diren zuzendari teknikoaren eginkizunak honako hauek dira: kirol izaera teknikoa dutenak eta kirol kudeaketa estrategikoa dutenak, baldin eta federazioaren kirol sistema planifikatu, arautu eta hobetzeari lotuta badaude (planak, erregelamenduak, jokabide onen kodeak, protokoloak eta abar egitea). Dirulaguntzaren ondorioetarako, kanpoan geratuko dira kudeaketa administratiboa, ekonomikoa edo idazkaritzakoa. Kontratutako pertsonak, osorik edo zati batean, beste funtzio administratibo batzuk, entrenatzaile lanak edo beste profil profesional batzuei lotutakoak egiten baditu, funtzio horiek argi eta garbi bereizita egon beharko dute lan kontratuan, eta ezin izango zaizkio diruz lagun daitekeen gastuari egotzi, azkenak federazioaren funtsak erabiliz finantzatu beharko direla.

Kontratazioan, honako baldintza hauek bete beharko dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ageri diren kirol zuzendariaren kualifikazio betekizunak.

– Federazioak eskola kirolari buruzko hitzarmena badu Arabako Foru Aldundiarekin, kontratatzen den pertsonak:

• Eskola kirolaren eremuan, kirol zuzendariaren eginkizunak bete beharko ditu nahitaez, eta administrazioarekiko harremanak bideratzeko solaskide nagusia izango da. Horrek guztiak ez ditu ezertan eragotziko eremu federatuan dituen funtzioak.

• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduduna izan beharko du.

– Kontratutako pertsonak, gutxienez, euskarako B2 maila egiaztatuta eduki beharko du.

– Kontratazio prozesuak publikitatea izan beharko du, eta irizpide objektiboetan eta hautagaien arteko tratu berdintasunean oinarrituko da.

– Pertsonak alta emanda egon beharko du Gizarte Segurantzari, eta, beraz, lanean egon beharko du 2026ko urriaren 1ean.

g) Arabako kirol federazio batek, Arabako kirol federazioen elkarte batek edo federazio horiei atxikitako ikastegi batek, 2025. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legeak araututako kirol lanbideetako batean jarduteko aukera emango duten kirol modalitateetako prestakuntza ikastaroak antolatzea. Euskal federazio baten titulartasuneko prestakuntza jarduerak ere diruz lagundu ahal izango dira, betiere Arabako federazio egokiarekin batera antolatu badira.

Dirulaguntza jasotzeko, prestakuntza-saioek baldintza hauek bete behar dituzte:

- I., II. edo III. mailako ikastaroak edo horien baliokideak izan behar dira, kirol lanbideei buruzko legeak ezarritakoaren arabera jarduteko gaitzen dutenak.
- Arabako Lurralde Historikoan egin behar dira.
- Gutxienez, izena ematen duten pertsonen ehuneko 25ek Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon behar dute.
- Ikastaro osoan parte hartu duten pertsonetan, gutxienez, 5 lagun aintzat hartu behar dira.
- Jarduerak diru sarrerak baino gastu gehiago izatea.
- Prestakuntzaren alderdi teorikoak (praktikaldia kontuan hartu gabe) 2025. urtean behar izan du.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

1. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke Arabako kirol federazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan behar bezala inskribatuta badaude eta 2025. urtean jarduera federatua garatu badute.

Gainera, euskara sustatzeko eta prestakuntza ikastaroetako dirulaguntzen lerroetan, egoitza soziala Araban duten kirol federazioen elkarteak ere onuradun izan daitezke.

2. Ez dira onuradun izango Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak onartu zituen azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotako baztertze egoeraren batean dauden erakundeak.

3. Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dituzten kirol federazioak ere ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan, baldin eta dirulaguntza honen xedearekin bat badatoz.

5. artikulua. Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak

1. Hona hemen Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak:

a) Baremaziorako eskatzen diren agiriak eta justifikatzeko nahitaezkoak direnak aurkeztea deialdi honetan jasotako epe eta moduetan.

b) Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea, hala behar duten dirulaguntzen lerroak ebazteko behar diren datuak eta ziurtagiriak biltzen.

c) 2012an edo geroago jaiotako eskola-kirolarientzako lizentzia federatuak ez izapidetzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe, Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programak arautzen dituen araudiari buruzko uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 86. artikulua adierazten duenari jarraikiz.

d) 2025-2026 kanpainan, eskola-kirolarientzako jarduerarik edo lehiaketarik ez antolatzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

e) Ohiko jarduera, jarduera administratiboa eta, oro har, federazioaren, eskolako eta aisialdiko jarduera garatzeko beharrezkoak diren guztiak egitea.

f) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen duten informazioa eman beharko du, eta egin beharreko auditoriak onartu beharko ditu.

g) Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea klub, kirol talde eta, oro har, kirolariei ezagutarazteko Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak onesten dituen dirulaguntzen deialdiak.

h) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Kirol Zuzendaritzak ofizios kontsultatuko du egoera hori erakunde eskudunetan, baldin eta erakunde interesduna horren aurka ez badago.

i) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako printzipio orokorrak eta aplikatu beharreko araudian berdintasunari buruz jasotako aginduak betetzea, bereziki honako alderdi hauei dagokienez: beren kirol modalitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea lurralde eremu osoan; komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan hizkuntzaren erabilera parekidea bermatzea; emakumeen irudi diskriminatzaile oro saihestea; eta berdintasunaren, aniztasunaren, rolen aniztasunaren eta erantzukidetasunaren balioak dituen irudia sustatzea. Halaber, igortzen diren dokumentu guztietan, aurkezpenetan eta ahozko komunikazioan eta komunikazio sinbolikoan hizkera ez-sexista erabiltzea.

j) Dirulaguntza ematen duen erakundeari jakinaraztea, hala badagokio, beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik —estatukoak zein nazioartekoak— jasotako dirulaguntzak edo laguntzak, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako aldaketak ere.

k) Arabako Foru Aldundiaren finantziarioa berariaz jasotzea, diruz lagundutako jarduera guztietan, baldin eta jarduera horien zabalkundea, hedapena edo, hala badagokio, argitalpena badakarte.

l) Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, honako ohar hauek betetzea:

— Egindako jarduera, liburuxkak, kartelak eta bestelako publizitate euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratzea eta herritarren artean zabaltzea.

— Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatzea, aurkezpenetan eta agurretan barne; lehenengo euskaraz egingo dira, eta gero gaztelaniaz.

— Haurrei edo gazteei zuzendutako ekitaldi baten onuradunek jardueran euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko aukera dutela bermatzea.

m) Federazioak dituen langile kontratatuek eta/edo boluntarioek, adingabeekin ohiko harremana izatea dakartenek, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatzea. Era berean, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren V. tituluko II. kapituluko aurreikuspenak berehala aplikatzea.

n) Federazioko langileei, profesionaleri edo boluntarioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako betebeharrak betetzea.

o) Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 132. artikulua ezartzen dituen nahitaezko liburuak legeztatuta edukitzea.

2. Betebehar horiek ez betetzeak eskabidea ukatzea edo jasotako laguntza itzultzeko errekrimendua eragin dezake.

6. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Kirol federazioek eskabide bakarra aurkeztu ahal izango dute. Eskatzaile berak eskabide bat baino gehiago egiten badu, azkena hartuko da kontuan, eta gainerakoa ofizioz itxiko da. Ez dira kontuan hartuko itxi beharreko eskabideetan aurkezten diren datuak eta dokumentuak.

2. Eskabideak aurkezteko, egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoen berariazko izapidea baino ez da erabiliko.

3. Eskabideetan erantzukizunpeko adierazpen bat jasoko da, bertan jasotako informazioa eta dokumentazioa egiazkoak direla eta beste betebehar batzuk betetzen direla adierazteko.

4. Eskabideak erabat formalizatzen ez badira edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta bada, hamar egun balioduneko epea emango zaio erakunde interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskabidearekin batera, I. eranskina aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, honako agiri hauek:

a) 2025ean, gutxienez 6 hilabeteko kontratua duten soldatapeko langileek:

– Lan kontratuen kopia.

– 2025eko ekitaldiko 190 eredia (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena. Lanaren, jarduera ekonomikoen, sarien eta errenta egozpen jakin batzuen etekinak), baldin eta erakunde eskatzaileak Kultura eta Kirol Sailak ofizioz egiaztatzearen aurka egiten badu.

b) Plan estrategikoari edo berdintasun, euskara edo ekitate planei dagokienez, honako bi dokumentu hauek erantsi beharko dira:

– Dagokion urte anitzeko plana.

– Planaren lehen urtea ez bada: planaren memoria, egindako ekintzak eta 2025. urtean edo 2025-2026. denboraldian lortutako emaitzak jasotzen dituen.

Euskara sustatzeko konpromisoari doakionez, entitatean euskararen presentziari, erabilerari eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri baten bidez ere egiaztatu ahal izango da (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari).

Gobernantza Onaren Kodeari dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dira:

– Gobernantza Onaren Kodea.

– Kodea onetsi zuen federazio batzarraren akta.

c) Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak edo ekitaldiak edo antzeko jarduerak aurkezten dituzten pertsonen itzulpen edo kontratazio zerbitzuei dagokienez:

– II. eranskina atal honi dagokion zatia baino ez da bete behar.

– 2025eko gastuen fakturak edo egiaztagiria.

– Aurreko fakturen ordainagiria edo gastuen egiaztagiria.

d) 2026an zuzendari teknikoaren lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko langile berriak kontratatzeari dagokionez:

– II. eranskina atal honi dagokion zatia baino ez da bete behar.

– Zuzendari teknikoaren proiektua, honako alderdi hauek jasotzen dituen:

• Justifikazioa.

• Federazioak kontratazioa dela eta bete nahi dituen helburuak.

• Lanpostuaren eginkizunak.

• Kontratatu beharreko pertsonaren lanbide profila.

• Kontratatze modua.

• Lanpostuaren dedikazioaren banaketa. Lanaldi osoarekiko ehunekoak, eta zeregin motaren arabera ehunekoak. Hala badagokio, diruz lagundu ezin diren beste zeregin batzuen garapena (administraziokoak, kontabilitatekoak, entrenatzailea eta abar).

• Konpromiso ekonomikoa eta jasagarritasunekoak: federazioaren berezko ekarpena, jarraitutasun aurreikuspena.

• Kontratazioaren eraginaren jarraipen adierazleak.

– Federazioaren 3 urtera jarduteko proiektu teknikoak: helburuak, ekintzak eta denborazko epeen aurreikuspena. Ekintza guztien artetik, honakoak adierazi behar dira:

- Batez ere zuzendari teknikoak garatuko lituzkeenak edo gidatuko lituzkeenak.
- Gaur egun garatzen ari direnen aldean berritzaileak liratekeenak.

– Federazioaren egungo dokumentuak, bere antolaketa edo plangintza egoera baloratzeko aukera ematen dutenak: plan estrategikoa, 3K Programan parte hartzea, beste plan batzuk, protokoloak, nahitaezko erregelamenduen onarpen egoera...

e) 2025eko prestakuntza ikastaroei dagokienez:

– II. eranskina Atal honi dagokion zatia baino ez da bete behar.

– Zabalkunderako erabilitako ikastaroaren orri edo informazio dokumentua, honako argibide hauekin: ikastaroaren izena, modalitatea (aurrez aurrekoa, online/mistoa), non egingo den, hasiera eta amaiera data, erakunde antolatzailea(k), pertsonako prezioa.

– Ikastaroan izena eman duten pertsonen zerrenda, pertsona bakoitzaren errolda lekua eta gai izan diren ala ez adierazita.

– Ikasturtearen amaierako kontu ekonomikoa, honako hauek jasota:

• Benetako gastuen zerrenda zehatza: irakaskuntza, alokairuak, materiala, joan-etorriak, aseguruak, etab. Kontzeptu bakoitzaren fakturak edo gastuen egiaztagiria eta dagozkion ordainagiria erantsi beharko dira.

• Inskripzioen edo bestelakoen bidez lortutako diru-sarrera errealeen zerrenda xehea.

2. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, instrukzio organoak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunaren bidez egingo ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriei buruzko kontsultak eta egiaztapenak, salbu eta entitate eskatzaileek edo onuradunek horren aurka egiten badute. Ofizioz egiaztatzeari uko eginez gero, entitate eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

8. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliodun izango da, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak eta dirulaguntza kalkulatzeko modua

1. Laguntza osagarria emateko, puntuazioaren arabera banaketa sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek bata bestearen atzetik aplikatuz:

A. Erakunde eskatzaile bakoitzari puntu kopuru jakin bat emango zaio, honako arau hauen aplikazioaren arabera:

1. Federazioaren egituragatik eta jardueren antolaketagatik:

	PUNTOAK
Federazioan zuzendari tekniko gisa kontratatutako pertsona bat, gutxienez 6 hilabete 2025ean, lanaldi osoan	15
Federazioan zuzendari tekniko gisa kontratatutako pertsona bat, gutxienez 6 hilabetez 2025ean, lanaldi erdia edo gehiagoko ehunekoan baina lanaldi osotik beherako ehunekoan	9
Federazioan zuzendari tekniko gisa kontratatutako pertsona bat, gutxienez 6 hilabete 2025ean, lanaldi erditik beherako ehunekoan	3
Federazioak kontratatutako pertsonen lan hilabeteen batura, zuzendari teknikoarenaz bestelakoa, gutxienez 6 hilabetez 2025ean, lanaldi osoko 36 hilabetekoa bada	15
Federazioak kontratatutako pertsonen lan hilabeteen batura, zuzendari teknikoarenaz bestelakoa, gutxienez 6 hilabetez 2025ean, 24 eta 35 hilabete artekoa bada	10
Federazioak kontratatutako pertsonen lan hilabeteen batura, zuzendari teknikoarenaz bestelakoa, gutxienez 6 hilabetez 2025ean, 12 eta 23 hilabete artekoa bada	5

	PUNTUAK
Federazioak kontratatutako pertsonen lan hilabeteen batura, zuzendari teknikoarenaz bestelakoa, gutxienez 6 hilabetez 2025ean, 6 eta 11 hilabete artekoa bada	3
Erakundeak Euskaliten "kudeaketa aurreratuko diploma" izatea bere egituraren funtzionamendua hobetzeko, eta diploma horren ziurtagiria indarrean izatea deialdi hau argitaratzen den egunean	18
Federazioaren presidentea emakumea izatea	5
Entitateak berdintasun plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea	10
Erakundeak euskara plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea edo erakundearen euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat izatea (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari)	10
Entitateak ekitate/inklusio plan bat izatea eta hura inplementatzen aritzea	10
Entitateak gobernantza onaren kodea izatea eta hura inplementatzen aritzea	10
Federazioak plan estrategikoa eduki eta inplementatzen aritzea (eta, gainera, "Kudeaketa aurreratuko diploma" ez izatea)	15

Aurreko taulan aipatutako planen kasuan, dagokion faktore zuzentzailea aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

- Planak indarrean egon behar dira deialdi hau argitaratzen den egunean.
- Urte anitzekoak izan behar dira, eta, gutxienez, eduki hauek jaso beharko dituzte: hel-buruak, ekintzak eta denboralizazioa (ekintza bakoitzaren gauzatze urtea).
- Planak jasotzen dituzten dokumentuak jatorrizkoak izan behar dira, eta entitateen banakako analisien emaitza.
- Dagokion planarekin batera, egindako ekintzen eta 2025. urtean edo 2025-2026 denboraldian lortutako emaitzen memoria aurkeztu beharko da, salbu eta plana aurten edo denboraldian sortu bada.
- Berdintasun, euskara edo ekitate/inklusio planak plan bakarrera ekarri alhako dira, betiere haien ardatz bereizia badute. Kasu horretan, planean garatutako eremuen faktore zuzentzaileak metatuko dira.

2. Kirol federatuari doakionez:

a) 2025eko abenduaren 31ra arte emandako federazio lizentzien kopuruagatik:

FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA	PUNTUAK
100 lizentziaraino	2
101 eta 200 lizentzia artean	4
201 eta 300 lizentzia artean	6
301 eta 400 lizentzia artean	8
401 eta 500 lizentzia artean	10
501 eta 600 lizentzia artean	12
601 eta 700 lizentzia artean	14
701 eta 800 lizentzia artean	16
801 eta 900 lizentzia artean	18
901 eta 1.000 lizentzia artean	20
1.001 eta 1.100 lizentzia artean	22
1.101 eta 1.200 lizentzia artean	24
1.201 eta 1.300 lizentzia artean	26
1.301 eta 1.400 lizentzia artean	28
1.401 eta 1.500 lizentzia artean	30
1.501 eta 1.600 lizentzia artean	32
1.601 eta 1.700 lizentzia artean	34
1.701 eta 1.800 lizentzia artean	36
1.801 eta 1.900 lizentzia artean	38

FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA	PUNTUAK
1.901 eta 2.000 lizentzia artean	40
2.001 eta 2.100 lizentzia artean	42
2.101 eta 2.200 lizentzia artean	44
2.201 eta 2.300 lizentzia artean	46
2.301 eta 2.400 lizentzia artean	48
2.401 eta 2.500 lizentzia artean	50
2.501 eta 2.600 lizentzia artean	52
2.601 eta 2.700 lizentzia artean	54
2.701 eta 2.800 lizentzia artean	56
2.801 eta 2.900 lizentzia artean	58
2.900 baino gehiago	60

b) 2025ean federazioari atxikitako eta fitxa federatuak dituzten klubak edo kirol-elkarteen (ez taldeen) kopuruagatik:

KLUB KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 5 klub artean	1
6 eta 10 klub artean	2
11 eta 15 klub artean	3
16 eta 20 klub artean	4
21 eta 25 klub artean	5
26 eta 30 klub artean	6
31 eta 35 klub artean	7
36 eta 40 klub artean	8
41 eta 45 klub artean	9
46 eta 50 klub artean	10
51 eta 55 klub artean	11
56 eta 60 klub artean	12
61 eta 65 klub artean	13
66 eta 70 klub artean	14
71 eta 75 klub artean	15
76 eta 80 klub artean	16
81 eta 85 klub artean	17
86 eta 90 klub artean	18
91 eta 95 klub artean	19
96 eta 100 klub artean	20
101 eta 110 klub artean	21
111 eta 120 klub artean	22
121 eta 130 klub artean	23
131 eta 140 klub artean	24
140 klub baino gehiago	25

c) 2025. urtean zehar (urtarriletik abendura) garatu diren probintzia-mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegietako jardunaldi kopuruagatik:

– Kategoria federatu guztietako jardunaldiak batuko dira, gizonezkoenak zein emakumezkoenak.

– Lehiaketa “ofizialak” baino ez dira kontuan hartuko; hau da, “Arabako txapelak” titulua lortzeko helburua dutenak, modalitate, kategoria eta adin tarte desberdinetan, eta Arabako kasuan kasuko federazioak antolatu eta garatutakoak. Ondorioz, lagunartekoak kanpoan geratzen dira. Era berean, kanpoan geratzen dira klub batek, eta ez kasuan kasuko Arabako federazioak, zati batean edo osorik, antolatutako “Arabako txapelaketa” bat lortzera bideratutako lehiaketa ofizial guztiak.

– Lehiaketa egun bakoitzeko jardunaldi bat hartuko da kontuan kirol modalitate edo diziplina bakoitzeko lurraldeko egutegietan, kategoria bakoitzeko (kadete, gazte, senior eta abar), gizonzkoena zein emakumezkoena. Kategoria berean talde bat baino gehiago badago (A, B, C...), eta talde horien jardunaldiak egun berekoak badira, egun bakoitza jardunaldi bakartzat hartuko da.

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 10 jardunaldi artean	2
11 eta 20 jardunaldi artean	4
21 eta 30 jardunaldi artean	6
31 eta 40 jardunaldi artean	8
41 eta 50 jardunaldi artean	10
51 eta 60 jardunaldi artean	12
61 eta 70 jardunaldi artean	14
71 eta 80 jardunaldi artean	16
81 eta 90 jardunaldi artean	18
91 eta 100 jardunaldi artean	20
101 eta 110 jardunaldi artean	22
111 eta 120 jardunaldi artean	24
121 eta 130 jardunaldi artean	26
131 eta 140 jardunaldi artean	28
141 eta 150 jardunaldi artean	30
151 eta 200 jardunaldi artean	35
201 eta 250 jardunaldi artean	40
251 eta 300 jardunaldi artean	45
301 eta 350 jardunaldi artean	50
351 eta 400 jardunaldi artean	55
401 eta 450 jardunaldi artean	60
451 eta 500 jardunaldi artean	70

d) 2025. urtean (urtarriletik abendura) dagokion Arabako federazioak zuzenean antolatutako federazio mailako kirolarien modalitatea edo teknifikazioa sustatzeko jardunaldien kopuruagatik:

– Sustapen jardueratzat hartuko da modalitaterako kide berriak erakartzea helburu nagusi duten jarduerak garatzea. Ondorio horietarako, ezin izango dira aintzat hartu Arabako Foru Aldundiaren hitzarmenean jasota dauden eskola kirolaren programako jarduera irekiak.

– Federazio esparruko kirolarien teknifikazio jardueratzat hartzen dira federazioak antolatzen dituen edo Arabako selekzio gisa parte hartzen den entrenamenduak eta lehiaketa jarduerak.

– Jarduera bat egin den egun bakoitza hartuko da jardunalditzat, egun bereko ordu edo jarduera kopurua edozein dela ere.

JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 10 jardunaldi artean	2
11 eta 20 jardunaldi artean	4
21 eta 30 jardunaldi artean	6
31 eta 40 jardunaldi artean	8
41 eta 50 jardunaldi artean	10
51 eta 60 jardunaldi artean	12
61 eta 70 jardunaldi artean	14
71 eta 80 jardunaldi artean	16
81 eta 90 jardunaldi artean	18
91 eta 100 jardunaldi artean	20
101 jardunaldi baino gehiago	25

e) 2025ean (urtariletik abendura) Arabako dagokion federazioak zuzenean antolatutako teknikarien edo arbitroen prestakuntza ikastaroen kopuruagatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritakoaren arabera, I., II. eta III. mailako entrenatzaileentzako edo maila baliokideko entrenatzaileentzako ikastaroak bakarrik aintzat hartu ahal izango dira, eta, arbitraje langileen kasuan, arbitro edo epaile federatuaren lizentzia eskuratzea ahalbidetzen duen titulazioa lortzeko modua ematen dutenak.

– Arabako federazioak parte hartzen duen baina beste erakunde baten titulartasuna duten ikastaroak ezin izango dira eremu honetan kontuan hartu.

IKASTAROEN KOPURUA	PUNTUAK
1 ikastaro	2
2 ikastaro	4
3 ikastaro	6
4 ikastaro	8
5 ikastaro	10
6 ikastaro	12
7 ikastaro	14
8 ikastaro	15
9 ikastaro	16
10 ikastaro	18
10 ikastaro baino gehiago	22

3. Eskola kirola garatzen laguntzen duten Arabako kirol federazioak.

a) 2025-2026 eskola kiroleko kanpainan izena emandako erakunde parte hartzaileen (ez taldeen) kopuruagatik:

ERAKUNDE KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 5 erakunde artean	1
6 eta 10 erakunde artean	2
11 eta 15 erakunde artean	3
16 eta 20 erakunde artean	4
21 eta 25 erakunde artean	5
26 eta 30 erakunde artean	6
31 eta 35 erakunde artean	7
36 eta 40 erakunde artean	8
41 eta 50 erakunde artean	9
51 eta 60 erakunde artean	10
61 eta 70 erakunde artean	11
71 eta 80 erakunde artean	12
81 eta 90 erakunde artean	13
91 eta 100 erakunde artean	14
101 erakunde baino gehiago	15

b) 2025-2026 eskola kiroleko kanpainako jardueren, eskola lehiaketa ofizialeko egutegietako jardunaldien (benjamin, kimu, haur eta kadete) eta eskolako irteeren kopuruagatik:

Puntuazioa esleitzeko, Arabako Lurralde Historikoan garatutako egutegi bakoitzeko edo kirol modalitate edo diziplina bakoitzeko Arabako federazioak antolatutako jarduera edo lehiaketa egun bakoitzeko jardunaldi bat hartuko da kontuan, kategoria bakoitzeko (benjamin, kimu, haur, kadete, etab.), gizonetzkoena zein emakumezkoena. Kategoria berean talde bat baino gehiago

badago (A, B, C...), eta talde horien jardunaldiak egun berekoak badira, egun bakoitza jardunaldi bakartzat hartuko da. Era berean, eskola kategorია guztietako jardunaldiak batuko dira, gizonezkoenak zein emakumezkoenak:

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 10 jardunaldi artean	1
11 eta 20 jardunaldi artean	2
21 eta 30 jardunaldi artean	3
31 eta 40 jardunaldi artean	4
41 eta 50 jardunaldi artean	5
51 eta 60 jardunaldi artean	6
61 eta 70 jardunaldi artean	7
71 eta 80 jardunaldi artean	8
81 eta 90 jardunaldi artean	9
91 eta 100 jardunaldi artean	10
101 eta 110 jardunaldi artean	11
111 eta 120 jardunaldi artean	12
121 eta 130 jardunaldi artean	13
131 eta 140 jardunaldi artean	14
141 eta 150 jardunaldi artean	15
151 eta 200 jardunaldi artean	20
201 eta 250 jardunaldi artean	25
251 eta 300 jardunaldi artean	30
301 eta 350 jardunaldi artean	35
351 eta 400 jardunaldi artean	40
401 eta 450 jardunaldi artean	45
450 jardunaldi baino gehiago	50

c) Eskola kirolaren arloan Diziplina Batzordeak 2025ean emandako ebazpenen kopuruagatik:

EBAZPEN KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 5 ebazpen artean	3
6 eta 10 ebazpen artean	6
11 eta 20 ebazpen artean	12
21 eta 30 ebazpen artean	18
31 eta 40 ebazpen artean	24
41 eta 50 ebazpen artean	30
51 ebazpen baino gehiago	34

B. Deialdi honetako 2.2 c) artikuluan ezarritako kopurua lortutako puntu guztien eta federazio guztien artean zatituko da. Horrela, puntu balioa lortuko da.

C. Puntu balio hori federazio bakoitzak lortutako puntuekin biderkatuko da; horrela, federazio bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa lortuko da.

2. San Prudentzio txapelketak antolatzeko laguntza kalkulatzeko irizpideak honako hauek dira:

a) Diruz lagunduko dira 3 b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten egindako eta justifikatutako jarduera guztiak.

b) Federazio bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, federazio bakoitzak antolatutako San Prudentzio jardueren kopurua bider 750,00 egingo da, kirol modalitate eta federazio bakoitzeko gehienez ere 5 jarduera kontuan hartuta.

c) San Prudentzioko txapelketetarako eskatutako laguntza guztien batukariak 2.2b) 1. artikuluan ezarritako gehienekoa gainditzen badu, gehieneko zenbateko hori zati laguntza eskatu deneko San Prudentzioko txapelketa kopurua egingo da.

3. Euskara ikastaroak egiteko dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Soldatapeko langileek euskara ikastaroak egiteko emandako dirulaguntzen zenbatekoa ikastaroetako matrikulen kostuaren ehuneko 80 izango da, 2.2.b) 2. artikuluan ezarritako mugak aintzat hartuta.

b) Ateratzen diren zenbatekoek 2.2.b) 2. artikuluan ezarritako gehieneko zuzkidura ekonomikoa gainditzen badute, jaso beharreko zenbatekoak deialdiko baldintzak betetzen dituzten jasotako eskabide guztien artean hainbanatuko dira.

4. Federazioen dokumentazioan eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko itzulpenak eta antzeko ekintzak garatzeko dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Itzulpenengatik, euskara erabiltzeko ekitaldietan aurkezleak kontratatzeagatik edo federazioko jardueretan eta dokumentazioan euskararen erabilera sustatzen edo ziurtatzen duten antzeko beste jarduera batzuek emandako dirulaguntzen zenbatekoa jarduera horien kostu osoaren ehuneko 90ekoa izango da, 2.2.b) 3 artikuluan ezarritako mugekin.

b) Ateratzen diren zenbatekoek 2.2.b) 3 artikuluan ezarritako gehieneko zuzkidura ekonomikoa gainditzen badute, jaso beharreko zenbatekoak deialdiko baldintzak betetzen dituzten jasotako eskabide guztien artean hainbanatuko dira.

5. Zuzendari teknikoak kontratatzeko dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Balorazioa honako taula honetako irizpideen eta puntuazioen arabera egingo da:

ZK.	BALORAZIO IRIZPIDEA	BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK	GEHIENKO PUNTUAZIOA
1	Zuzendari teknikoaren kontratazio berria	— Kontratazio berria, aurreko urtean horrelakorik ez zegoela (25 puntu) — Arduraldiaren ordu gehikuntza, aldezturik langile hori kontratatuta egonda (10 puntu)	25 puntu
2	Zuzendari teknikoaren proiektuaren kalitatea eta egokitasuna	— Kontratazioaren justifikazioa eta helburuak (5 puntu) — Esleitutako eginkizunen argitasuna eta koherentzia (10 puntu) — Kontratu beharreko pertsonaren lanbide profila eta kontratatze modua (10 puntu) — Lanpostuaren dedikazioaren banaketa: lanaldiaren ehunekoak eta zereginen tipologia, diruz lagundu ezin direnak barne (2 puntu) — Eskola kirolaren programan parte hartzea (10 puntu) — Lanpostuaren iraunkortasunaren eta jarraipenaren aurreikuspena (5 puntu) — Helburu argiak, neurgarriak eta kontratazioaren eraginaren jarraipen adierazleak definitzea (3 puntu)	45 puntu
3	Federazioaren proiektua hiru urtera begira	— Hiru urterako federazio proiektu egituratu eta koherentea egotea, ildo estrategikoekin, ekintzekin eta gauzatze kronogramarekin (10 puntu) — Zuzendari teknikoaren proiektuan argi eta garbi txertatzea (5 puntu) — Berrikuntzak federazioaren antolaketan (5 puntu)	20 puntu
4	Federazioaren egungo antolaketaren eta plangintzaren egoera	— Indarrean dagoen plan estrategikoaren eskuragarritasuna (4 puntu) — Araudiak onartuta egotea (3 puntu) — Protokoloak, kodeak eta plan espezifikokoak izatea: gobernu ona, funtzionamendua, euskara, berdintasuna eta abar (3 puntu)	10 puntu
GUZTIRA			100 puntu

b) Gutxienez 50 puntu lortzen dituzten proiektuek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza.

c) Emandako dirulaguntzen zenbatekoa kirol zuzendari berria kontratatzeko 2026an erabilitako gastuen ehuneko 70erainokoa izango da, edo ehuneko 50erainokoa lanaldia luzatuz gero, 2.2.b) 4. artikuluan ezarritako mugekin.

d) Ateratzen diren zenbatekoek 2.2.b) 4. artikuluan ezarritako gehieneko zuzkidura ekonomikoa gainditzen badute, puntuazio handienak dituzten proiektuak diruz lagunduko dira, hurrenkeraren arabera eta atal horretan erabilgarri dagoen kreditua agortu arte.

6. Prestakuntza ikastaroen dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Dirulaguntzaren zenbatekoa honako hauen arabera zehaztuko da: inskribatutako parte hartzaileen azken kopurua, jardueraren benetako gastu justifikatuak eta parte hartzaile bakoitzeko matrikularen batez besteko kostua.

b) Matrikularen batez besteko kostua kalkulatzeko, justifikatutako gastuen guztizkoa zati hamar egingo da.

c) Parte hartzaileen azken kopurua hamarretik beherakoa eta bostetik gorakoa bada, entitate onuradunak honako hauen arteko aldearen baliokidea den dirulaguntza jaso ahal izango du:

– Justifikatutako gastuen zenbateko osoa.

– Eta hurrengo bietatik handiena den zenbatekoa:

- b apartatuan adierazitako parte hartzaile bakoitzeko matrikula kostu teorikoaren arabera kalkulaturako diru sarrerak.

- Inskribatutako pertsonen matrikula guztien benetako diru sarrerak.

d) Horrela kalkulaturako zenbatekoa, hala badagokio, dirulaguntza jaso dezakeen bakarra izango da, ikastaro maila bakoitzerako ezarritako gehieneko muga barruan, 2.2.b) 5. artikuluan ezarritako mugekin.

e) Ateratzen diren zenbatekoek 2.2.b) 5. artikuluan ezarritako gehieneko zuzkidura ekonomikoa gainditzen badute, jaso beharreko zenbatekoak deialdiko baldintzak betetzen dituzten jasotako eskabide guztien artean hainbanatuko dira.

10. artikulua. Dirulaguntza ebaztea

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zuzendaritza da prozedura bideratzeko organo eskuduna.

2. Eskabideak balorazio batzorde batek aztertuko ditu, Kirol zuzendaria buru dela. Batzorde horretako kide izango dira, batzordekide gisa, Kirol Zerbitzuko burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Idazkari jardungo du Kultura eta Kirol Idazkaritza Teknikoko buruak edo hark eskuordetutako pertsonak, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

3. Balorazio batzordeak, aurkeztutako eskabideak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza zehazteko.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balorazio batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, erakunde interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

6. Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza zein erakunde eskatzailei eman zaion adierazi beharko da, eta gainerako eskabideak berariaz ezetsi beharko dira. Ebazpenean honako hauek jasoko dira: dirulaguntzen zenbatekoa (2. artikuluan deskribatutako kontzeptu bakoitzeko emandako zenbatekoa xehatuko da), ordaintzeko modua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta dirulaguntza emateko baldintzak.

7. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena erakunde eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetan.

11. artikulua. Ordainketa eta justifikazioa

1. Deialdi hau emateko ebazpena onartu ondoren ordainduko dira euskara sustatzeko itzulpenei eta antzekoei eta prestakuntza-ikastaroei dagozkien laguntza finkoak eta dirulaguntzak.

2. Deialdi hau emateko ebazpena onartu ondoren, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da laguntza osagarria. Justifikatzeko, beharrezkoa izango da dokumentazio hau aurkeztea, 2026ko abenduko 28an (egun hori barne) amaituko den epean:

a) Urteko kontuak eta aurrekontua onartzeko ohiko batzar orokorraren akta, 2026an egingakoa.

b) 2025. urteari dagokion kontabilitatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroak bideratua.

c) 2026ko aurrekontua edo 2025-2026 denboraldikoa (dagozionaren arabera): kapitulua eta programak xehatuta, federazioaren gastu eta diru sarrera guztiak jasota. Gastuak eta diru sarrerak orekatuta egongo dira, eta ezin izango da defizitarioa izan Arabako Foru Aldundiaren baimena lehenago lortu ez bada.

3. San Prudentzioko txapelketen dirulaguntza txapelketak egin direla justifikatu ondoren ordainduko da. Justifikazio agiriak aurkezteko epea abenduko 28an (egun hori barne) amaituko da. Justifikazioa egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Txapelketaren izena, eguna eta ordua, erakunde antolatzailea eta kirol diziplina.

b) Txapelketako argazkiak.

c) Parte hartzaileen zerrenda.

d) Txapelketako sailkapenak.

e) Txapelketaren inguruko publizitatea: kartelak, diptikoak, web orrirako esteka... (horrelakorik baldin badago).

4. Euskara ikastaroei dagokien dirulaguntza honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren ordainduko da:

a) HABEren ikastegi homologatuak egindako ikastaroen matrikulen gastuei dagozkien fakturak.

b) Matrikulak ordaindu izanaren egiaztagiria, 500,00 eurotik gorakoa bada.

c) Ikastaroaren ebaluazio ziurtagiria, aipatutako ikastegiak egina. Ziurtagiri horrek ikastaroaren aprobetxamendurik eza adierazten badu, laguntza ukatuzat joko da.

Justifikazio agiriak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 28an (egun hori barne) amaituko da.

5. Zuzendari teknikoak kontratatzeke dirulaguntzaren ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, deialdi hau emateko ebazpena onartu ondoren. Justifikatzeko, beharrezkoa izango da dokumentazio hau aurkeztea, 2026ko abenduaren 28an (egun hori barne) amaituko den epean:

a) Langilearen lan kontratua, egin diren aldaketekin batera. Honako hauek jaso beharko ditu:

a. Lanpostuaren izena: zuzendari teknikoa.

b. Lanpostuaren deskribapena.

c. Zuzendari teknikoaren eginkizunetan emandako dedikazioaren ehunekoa eta beste eginkizun batzuetan jarduteko ehunekoa: administrazio zereginetan, entrenamenduetan edo beste eginkizun batzuetan.

d. Kontratua aldatzen bada, aurreko kontratua ere aurkeztu beharko da.

b) Nominak Nominen ESS/2098/2014 Aginduan ezarritako kontzeptuak jaso beharko dituzte, hau da, langileak egindako kotizazio oinarria eta atxikipen tasa, bai eta erakunde kontratatzaileak egindakoa ere. Nominan agertzen ez diren kontzeptuak ezin izango dira diruz laguntzeko moduko gastutzat jo.

c) Aurkeztu diren 110 hiruhileko ereduak edo 190 ereduak, ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera, baldin eta eskaeran ofiziozko egiaztapenaren aurka egin badu.

d) Nominen ordainagiriak.

e) Kontratazioak federazioan duen eraginari eta jarduketari buruzko memoria teknikoa: egindako jardueren deskribapena, lortutako emaitzak, eta proiektuaren betetze maila.

6. Aurreko apartatuetan eskatutako egiaztagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina) ere aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da espedienteari erantzen zaizkion fitxategiak jatorrizkoen adierazgarri zintzoak direla, jatorrizkoak entitate eskatzailearen esku daudela, Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla hala eskatzen zaionean, eta deialdi honen 5. artikuluan ezarritako betebeharrak bete direla.

7. Artikulu honetan adierazitako agiriak aurkezten ez badira, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da, edo emandako zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko da.

8. Dokumentazioa era telematikoan aurkeztu beharko da nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko "Nire Karpeta" erabiliz, "Nire espedienteak" atalean, deialdiaren espediente espezifikora sartuta.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honen bidez emango diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera betetzeko beste edozein administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk, Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, edo Arabako Foru Aldundiak berak emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, betiere diruz lagundutako kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada.

13. artikulua. Deialdiaren publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian zabalduko da: www.araba.eus.

14. artikulua. Araudi aplikagarria

Honako hauek arautuko dute deialdi hau:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, aurrekontuei buruzkoa.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen aurrekontua betearazteko Foru Araua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.
- 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 3/2025 Foru Dekretua, otsailaren 4koa, Arabako Foru Aldundian hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onartzen dituena.

Aplikatzekoa den beste edozein manu.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

II. eranskina Anexo II

FEDERAZIOAK LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA - 2026 AYUDA A LAS FEDERACIONES - 2026

Eskatzailea / Solicitante

ITZULPENAK ETA ANTZEKO EKINTZAK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO / TRADUCCIONES Y ACCIONES SIMILARES PARA FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA

Federazioak diru-laguntza honen erroa eskatzen du:
La federación solicita esta línea de subvención

GASTUAK / GASTOS		
KONTZEPTUA Concepto	JUSTIFIKAZIOA Justificación	KOSTEA Coste

Eskabide honekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: 2025. urteari dagozkion gastuen fakturak edo egiaztagiriak, eta horien ordainagiriak. Junto con la presente solicitud, deberá adjuntarse: facturas o justificantes de gasto relativos al año 2025 y sus justificantes de pago.

ZUZENDARI TEKNIKOAREN KONTRATAZIOA / CONTRATACIÓN DE DIRECTOR O DIRECTORA TÉCNICA

Federazioak diru-laguntza honen erroa eskatzen du:
La federación solicita esta línea de subvención

Marcar con una X la opción correcta / X batez markatu aukera zuzena:

Kontratazio berria / Nueva contratación	<input type="checkbox"/>
Lan jardunaldia handitu / Ampliación de jornada laboral	<input type="checkbox"/>
GASTUAK / GASTOS	
Pertsona hori kontratatzeke aurreikusitako gastuak (€) Gastos previstos de contratación de esta persona para el año presente (€)	
Urte honetako kontratu-hilabeteak (aurreikusitakoak) Meses de contrato previstos en el año presente	

Eskabide honekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: zuzendari teknikoaren proiektua, delaldiaren 7.1 d) artikuluan adierazitako alderdiak barne hartzen dituen + federaziotik 3 urtera jarduteko proiektu teknikoak: helburuak, ekintzak eta periodizazioa + federazioaren antolaketa- edo plangintza-egoera baloratzeko aukera ematen duten egungo dokumentuak: plan estrategikoa, 3K programan parte hartzea, beste plan batzuk, protokoloak, nahitazko erregelamenduak onartzeke egoera, etab.
Junto con la presente solicitud, deberá adjuntarse: Proyecto de Director o Directora Técnica que incluya los aspectos señalados en el artículo 7.1 d) de la convocatoria + Proyecto técnico de actuación a 3 años vista de la federación: objetivos, acciones y periodización + Documentos actuales de la federación que permitan valorar su estado organizativo o de planificación: plan estratégico, participación en el Programa 3K, otros planes, protocolos, estado de aprobación de los reglamentos obligatorios, etc.


PRESTAKUNTZA IKASTAROKOAK / CURSOS DE FORMACIÓN

Federazioak diru-laguntza honen erroa eskatzen du:
La federación solicita esta línea de subvención

GASTUAK / GASTOS		
Ikastaroaren izena Nombre del curso	Izena eman duten pertsona kopurua Nº de personas inscritas	Ikastaroaren defizita Deficit del curso

Eskabide honekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: ikastaroaren orria edo dokumentu informatiboa + ikastaroaren izena eman duten pertsonen zerrenda, pertsona bakoitzaren errolda- lekua eta gai izan diren aia ez adierazita + ikastaroaren amaierako kontu ekonomikoak, gastuak eta diru-sarrerak errealak barne hartuta.
Junto con la presente solicitud, deberá adjuntarse: Hoja o documento informativo del curso +Relación nominal de personas inscritas en el curso en el que se refleje el lugar de empadronamiento de cada persona y si han sido aptos o no aptos + Cuenta económica final del curso que incluya, de forma desglosada, los gastos e ingresos reales.

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Federazioak laguntzeko dirulaguntza</p> <p>III. eranskina</p> <p>Subvención de ayuda a federaciones</p> <p>Anexo III</p>	<p>2026</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

DECLARACIÓN RESPONSABLE

Entitatearen izena Nombre de la entidad

ADIERAZTEN DU

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagiri guztiak emango ditu; gainera, eskaera aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Espedienteari erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela dira, jatorrizkoak elkartearen esku daude eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu, hala eskatzen zaionean.

Deialdiaren 5. artikuluan erakunde onuradunentzat ezarritako betebeharrak bete dira, eta, bereziki, honako hauek:

- Haur edo beheragoko mailako eskola-kirolarientzako lizentzia federaturik izapidetu ez izana, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.
- 2025-2026 kanpainan eskola-kirolarientzako jarduerarik edo lehiaketarik antolatu ez izana, Arabako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.
- Federazioko langileei, profesional zein boluntarioei, dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartu eta aritzeari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean ezarritako betebeharrak betetzea.
- Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 132. artikuluan ezarritako nahitaezko liburuak legeztatuta edukitzea.


DECLARA QUE

Los datos presentados son ciertos y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Los ficheros que se incorporan al expediente son imagen fiel de los originales, que éstos obran en su poder y que los pondrá a disposición de la Diputación Foral de Álava cuando así sea requerida.

Se han cumplido con las obligaciones establecidas para las entidades beneficiarias en el artículo 5 de la convocatoria y, en particular, las siguientes:

- No haber tramitado licencias federadas para deportistas escolares de categoría infantil o inferior sin la autorización expresa de la Dirección de Deporte de la Diputación Foral de Álava.
- No haber organizado durante la campaña 2025-2026 actividades o competiciones para deportistas escolares sin la autorización expresa de la Dirección de Deporte de la Diputación Foral de Álava.
- En relación al personal, profesional o voluntario, de la federación, cumplir con las obligaciones que establece la Ley 8/2022, de 30 de junio, sobre acceso y ejercicio de profesiones de la actividad física y del deporte en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- Disponer legalizados los libros obligatorios que establece el artículo 132 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus</p>	<p>Federazioak laguntzeko dirulaguntza</p> <p>III. eranskina</p> <p>Subvención de ayuda a federaciones</p> <p>Anexo III</p>	<p>2026</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------

Kultura eta Kirol Saila
Departamento de Cultura y Deporte

Kirol Zerbitzua
Servicio de Deporte

.....
(Lekua eta data Lugar y fecha)

Sinadura Firma

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jaso den funtsezko edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa edo komunikazioa, ezingo da jarraitu dena delako eskubidea baliatzen edo jarduera gauzaten, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, betiere horren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak alde batera utzi gabe (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Entitatearen zigilua Sello de la entidad

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).